



POLITIKEN KOHERENTZIA, IPARRA GALDU GABE.

ARMAGINTZA EKOIZPEN ZIBIL BIHURTZEKO BIDEAN

POLITIKEN KOHERENTZIA, IPARRA GALDU GABE. ARMAGINTZA EKOIZPEN ZIBIL BIHURTZEKO BIDEAN

Egilea: Iñaki Otamendi Gutiérrez (Bake Ekintza Antimilitarista, Centre Delàs d'Estudis per la Pau)

Proiektuaren zuzendaria: Emeriaz Elkartea

Koordinazioa eta komunikazioa: Sudergintza Kooperatiba

Laguntza eta aholkularitza: Centre Delàs d'Estudis per la Pau

Sudergintza

Berdintasunerako, bakeko eta bizikidetzarako kooperatiba feminista

Cooperativa feminista d'investigació i acció social per a la igualtat i la convivència

**CENTRE DELÀS
D'ESTUDIS
PER LA PAU**

**EMERIAZ
ELKARTEA**

Memoria eta bizikidetzaren feminista

**Bake-Ekintza
Antimilitarista**

Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren laguntzarekin argitaratu da.
Argitalpen-urtea: 2020



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bakea eta
eta Lanakidetzaren Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

AURKIBIDEA

1// SARRERA

2//POLITIKEN KOHERENTZIA, IPARRA GALDU GABE. ARMAGINTZA EKOIZPEN ZIBIL BIHURTZEKO BIDEAN

3// 2016-2020: GERRAREN KONTRAKO EKIMEN BERRIAK ETA EUSKAL INDUSTRIA MILITARRAREN KONBERTSIOARI BURUZKO EZTABAIDA

4// BAKEZALEAK, ANTIMILITARISTAK ETA GGKEak. BOST HAMARKADAZ ARMA-GABETZEA XEDE

5// EUSKADIKO ARMA-MERKATARITZA ETA -ESPORTAZIOARI BURUZKO 2019KO TXOSTENARI ERANTZUNA

6// ONDORIO MODUAN

1// SARRERA

Garapenerako politiken koherentzia konpromiso politiko eta instituzionala da, eta hemendik kanpo hedatzen diren lankidetzak eta garapen-politikei begiratzen die, askotariko eremuak ukitzearekin bat; hala nola, merkataritza, nekazaritza, arrantza, migrazioak, ingurumena, segurtasuna eta erosketak publikoak. Zehazki, mundu-mailako interdependentzia onartzea eskatzen du kontzeptu horrek, eta, beraz, baita politika horiek beste testuinguru batzuetan (bereziki, hegoaldeko herrialdeetan) eragiten dituzten inpaktuak aintzat hartuta jardutea ere norberaren herrian.

Latinoamerikako Multinazionalen Behatokiaren (OMAL) arabera, garapenerako politiken koherentziaren kontzeptuak oinarrian bertan aitortzen ditu gero eta konektatuago dagoen sistema honen baitako interdependentziak eta konplexutasunak; izan ere, sistema konektatu hori osatzen duten estatuek garapenaren berezko eskariei eta erronkei haien kabuz erantzuteko gaitasunak galdu dituzte. Horrenbestez, politika publikoak garapenaren ikuspegitik aztertu beharko dira, eta berriro diseinatu, betearazi eta ebaluatu. Zentzu horretan, hegoaldeko herrialdeetan argi eta garbi eragiten duten politiketako bat defentsarako, segurtasunerako eta bietarako materialaren esportazioa da (hegoaldeko herrialdeetan ez ezik, gatazka-, tentsio- edo okupazio-testuinguruetan ere bere inpaktua du).

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, bakearen, elkarbizitzaren eta giza eskubideen inguruan konplizitateak ehuntzeko nahian oinarrituriko estrategiak talka egiten du industria militarren eremuko euskal ekoizpenaren inpaktuarekin. Azken urteetan, EAEn fabrikatu den edo jatorria EAEn duen defentsa-materiala gatazka- edo tentsio-egoeran dauden lurraldeetara bidali dela egiaztatu da, Bake Ekintza Antimilitaristaren, Emeriaz Elkartearen eta Bartzelonako Centre Delàs d'Estudis per la Pau zentroaren arteko sinergien esparruan egindako working paper honetan azaltzen den bezala. Politiken koherentziaren arloan, halaber, kezagarria da euskal enpresa batzuek (besteak beste, Gamesak eta CAFek) autonomoak ez diren edo okupatuta dauden lurraldeetan (hala nola, Mendebaldeko Saharan edo Palestinako lurralde okupatuetan) burutzen diren negozioetan parte hartzea, nahiz eta gai hori ez den txosten honen muina, material militarren esportazioari bakarrik helduko baitiogu.

Eusko Jaurlaritzak, 2019ko azaroan, Euskadiko arma-merkataritzari eta -esportazioari buruzko txosten bat aurkeztu zuen, non euskal erakundeek esportazioen gardentasuna nahiz kontrola hobetzeko duten eginkizuna zein den ere azaltzen den. Zalantzarik gabe, aurrerapauso handia izan zen egitasmo hura, ekoizpen mota horren opakutasun eta ondorioen gainean kontzientzia hartzeari dagokionez. Hala ere, euskal mugimendu antimilitaristak azaldu duenez, txostenak ez du armamerkataritzaren eta garapenaren arteko inkohorentziak gainditzeko benetako bidea irekitzen, ez direlako behin betiko irtenbide egingarriak planteatzen; adibidez, industria militarra ekoizpen zibil bihurtzeko ideia ez da aipatu ere egiten.

Hala, eztabaidarako tresnak eta argudio sendoak emateko asmoz argitaratzen da txosten hau, sakon jorra daitezen bai industria militarren auzia, bai industria horrek armak nahiz osagaiok jasotzen dituzten lurraldeetako biztanleen giza eskubideetan duen inpaktuaren gaia. Konplexua da debatea, eta konplexuak izan behar dute, era berean, Euskal Autonomia Erkidegoa bakearen, justiziaren eta elkarbizitzaren eredu koherentea izan ahal izateko politiketarantz abiatzeko irtenbideek ere.

Emeriaz Elkarteak.

**2// POLITIKEN KOHERENTZIA, IPARRA GALDU GABE.
ARMAGINTZA EKOIZPEN ZIBIL BIHURTZEKO BIDEAN**

Gatazken indarkeriarik gabeko ebazpenak, besteak beste, euskal industriaren desmilitarizazio-prozesuak sustatzea eskatzen du; bereziki, gatazka horiek elikatzen egon daitezkeen sektoreen produkzioari dagokionez. Industria militarra baita gerren kausa eta ondorioa.

«Si vis pacem para bellum» esakuneari jarraitzeak azken hamarkadetan aurrekontu militarrek gora eta gora egitea ekarri du; hots, gizarte-premiei hobeto erantzuteko inberti litekeen dirua armetan xahutzea. Defentsa Ministeriorako aurrekontuari eta gastu militarra kamuflatzen duten beste partida batzuen (ekonomiaren sustapena, industria, merkataritza, esportazioak, ikerketa...) aurrekontuei esker, armen ekoizpenari eustea ahalbidetzen duten hainbat urteta rako perspektibak dauzka industria militarrek, eta, bezeroa Estatua bera ez denean, material belikoaren esportazioak «gerra hemen hasten da» esakunea berretsi besterik ez du egiten.

Armen ekoizpena eta merkataritza legezko negozioak dira, baina ezin daiteke bazter utzi material belikoaren eskaintza eta eskaria estu-estu lotuta daudela, batetik, estatu gehien segurtasun militartuaren kontzepzioarekin eta, bestetik, munduan gatazka armatuak ego tearekin: ACNUR Nazio Batuen Erakundeko Errefuxiatuen Laguntzarako Agentziaren arabera¹, Yemen, Irak, Siria, Hego Sudan, Somalia eta Afganistan dira gaur egun lekualdaketa behartu eta biktima gehien eragiten ari diren gatazketako sei, baina intentsitate gutxiagoko gatazkek daude, baita ere, Erdialdeko Amerikan (Kolonbia) eta Asiako (Kurdistan) edo Afrikako beste toki batzuetan; Europan, Ukrainiaren eta Errusiaren arteko tentsioak aipa daitezke, edo Karabakh Garaian berrikiago hasitako gerra. Krimen antolatua ere industria militarren bezeroa da.

Bezeroa Estatua bera izan edo gatazka kanpoaldean gertatu gorabehera, industria militarra beti saiatzen da «gerrako jaunen» premien aurretik joaten. Gainera, enpresen eta administrazio publikoaren arteko interrelazioa arina da, eta ate birakariak ohikoak dira². Erakundeek merkatu askean ez sartzeko eginkizuna defendatzen dute, baina, Espainiako Estatuan, ministerioarteko batzordeari (JIMDDU) dagokio material belikoaren esportazioak onestea. Alabaina, batzordearen aktak sekretuak dira, Ministroen Kontseiluaren 1987ko erabaki³ bati esker, zeina oraindik ere indarrean dagoen Sekretu Ofizialei buruzko 1968ko Lege frankistaren babespean onartu zen.

Euskadiren kasuan, autonomia-erkidegoek ez daukate kanpo-merkataritzaren, armen eta arma-industriaren inguruko eskumenik, baina bere eskumen-eremuan daude ekonomia-jardueraren eta industriaren sustapena, garapen ekonomikoa eta plangintza. 80ko hamarkada tik hona, Euskadiko arma-sektorea beste enpresa-eremu batzuen laguntza, finantzaketa, mailegu edo diru-laguntza berberez baliatu da, ekoizpen zibilaren eta militarren artean bereizi gabe. Aldi berean, ordea, ukatu egiten da gaur egun euskal industria militarrik dagoenik ere, lurraldeak arma-industriarekin historikoki izan duen loturatik eta enpresa batzuek noizean behin material belikoaren ekoizpenean parte hartzetik harago. Haatik, talde antimilitaristek eta bakezaleek garapenerako gobernuz kanpoko erakundeekin (GGKE), talde feministekin eta errefuxiatuei laguntzeko kolektiboekin batera hainbat hamarkadaz garatu duten ikerketa- eta sentsibilizazio-lanak erakutsi duenez, Euskal Herrian armak ekoitzi eta esportatzen dira (gainera, Estatuko ekoizpenaren % 16 dela kalkulatzen da⁴), eta euskal erakundeek industria militarra sendotzen eta sustatzen laguntzen dute, Gasteizkoak talde antimilitaristak egindako ikerketek hainbat aldiz frogatu dutenaren arabera⁵.

1 ACNUR. 2020an gerran dauden herrialdeak. Linean: https://eacnur.org/blog/paises-en-guerra-actualmente-tc_alt45664n_o_pstn_o_pst/

2 Ortega, Pere. 2015. El lobby de la industria militar española. Bartzelona, Ed. Icaria.

3 Cortázar, Ander. 2018/02/14. "Una ley franquista impide conocer el comercio de armas de España". El Boletín.

En línea: <https://www.elboletin.com/noticia/159353/nacional/una-ley-franquista-impide-conocer-el-comercio-de-armas-de-espana.html>

4 Albín, Danilo. 2018/05/26. "Movilización feminista contra la industria militar vasca: "La guerra empieza aquí". Público egunkaria.

Linean: <https://www.publico.es/sociedad/feminismo-movilizacion-feminista-industria-militar-vasca-guerra-empieza.html>

5 Gazteizkoak. 2016. Estas guerras son muy nuestras. Tafalla, arg. Txalaparta.

Testuinguru horretan, konbertsioa da enpresek eta erakunde publikoek estatuko gastu militarra handitzen eta gatazkan dauden lurraldeetara armak esportatzen laguntzeari uzteko aukerarik onena. Bartzelonako Centre Delàs d'Estudis per la Pau zentroak argitaratutako Diccionario de la guerra, la paz y el desarme [Gerraren, bakearen eta desarmearen hiztegia] hiztegiak honela definitzen du industria militarren konbertsioa: «Prozesu bat da, zeinaren bidez ekoizpen militarra sektore ez-militarretara bideratu daitekeen⁶». Pedagogikoagoak izate aldera, “konbertsio” hitza erabiltzea gomendatzen du, “birmoldaketaren” ordez, sinonimoak diren arren «birmoldaketak askoz ere konnotazio negatiboagoak dauzkalako, eskulanaren galerarekin lotzen baita zuzenean. Konbertsioak, berriz, eraldaketa-prozesuan dagoen subjektu baten edo egoera batetik beste baterako aldaketaren ekintza positiboa nabarmentzen du, birmoldaketaz bestelako esanahia eta balioa hartuz». Horrela, bada, konbertsio batek ekar litzakeen ondorio txarrak saihesteko xedez, «proposamenak kontzepzio orokor batetik abiatuta jorratu beharko lirateke beti, tokiko, eskualdeko eta estatuko administrazioak inplikatur eta elkarteen mundu anitzaren barruan (sindikatuak, gizarte-entitateak, garapenari laguntzeko erakundeak, auzo-elkarteak eta profesionalen elkarateak) ahalik eta gizarte-babes handiena bilatuz, konbertsioari buruzko azterlanak egiteko garaian eta industria militarren konbertsioa posible egingo duen esparru bateratu bat lortzeko orduan laguntza tekniko oso baliotsua erants dezaketelako».

Beste gizarte-eremu batzuetan gertatzen den bezalaxe, industria militarren ondorioen salaketak eta konbertsio-proposamenak alferrikakoak zirela ematen zuen, baina, azken urteetan Ekialde Ertaineko gatazkek gordindu egin direnez eta hainbat migrazio-krisi gertatu direnez, gizarte gehiago mugitu da. Ondorioz, erakundeek haien jarrera azaldu behar izan dute jendaurrean.

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko arma-merkataritzari eta -esportazioari buruzko txostena aurkeztu zuen 2019ko azaroan, non euskal erakundeek esportazioen gardentasuna nahiz kontrola hobetzeko duten eginkizuna zein den ere azaltzen den⁷. Egitasmo hark euskal mugimendu antimilitarista eta GGKEak harritu zituen, zerga-pizgarriak proposatzen zirelako jokabide-kode etikoei heltzen zieten, gizarte-erantzukizun korporatiboan sakontzen zuten eta, ondorioz, esportazioen gardentasuna hobetzen zuten arma-enpresentzat. Txostenean ez zitzaion inolako aipamenik egiten industria militarra industria zibil bihurtzeko ideari, ezta etorkizunera begirako mugarri gisa ere.

Euskadiko industria militarra elikatzen jarraitzeko asmoaren aurrean, working paper honen bidez, lehenik, aitortza egin nahi diogu mugimendu bakezalearen, antimilitaristaren eta feministaren nahiz GGKE-en hainbat hamarkadako lanari, eta, bigarrenik, agerian utzi nahi dugu euskal gizartean errotuta dagoela, giza eskubideen garapenarekin eta bakearen erai kuntzarekin zeharo konprometitutako herria izan nahi badugu, industria militarra industria zibil bihurtu behar delako ideia. Gizartearen sensibilizazio hori egiaztatzeko, ordea, erakunde publikoek, enpresek eta sindikatuak beren gain hartu beharko lukete ekoizpen militarrik gabeko etorkizuna aztertu, planifikatu, inbertitu eta egia bihurtzeko eginkizuna, eta dibertsifikazioari edo gardentasunari begirako planteamenduak saihestu beharko lituzkete, erakutsi denez inora ez daramaten bideak baitira: gaur egungo egoera finkatzen dute, eta industria militarra industria zibil bihurtzeko prozesuetan ez dira tresna baliagarriak.

Euskal industria militarra zibil bihurtzeko eskariaren gaineko ikuspegi hobea eta denboran zeharrekoa edukitze aldera, bai eta gizarteak egindako bidearen ebidentzia egiaztatzeko xedez ere, erakundeek ikuspegi hori hartzeari begira, baliagarria izan daiteke deskribapen kronologikoa egitea, oraingo egitateetatik hasita, aurreko hamarkadetara joateko.

6 Centre Delàs d'Estudis per la Pau. Diccionario de la Guerra, la Paz y el Desarme. “Industria militarren konbertsioa” sarrera.

Linean: <http://dicionarioguerrapazdesarme.centredelas.org/es/conversion-de-la-industria-militar/>

7Eusko Jaurlaritzak, Globernance Institutua. 2019ko azaroa. “Armen merkataritzak eta esportazioa Euskadin. EAEko erakundearen eginkizuna gardentasuna hobetzeko, esportazioak kontrolatzeko eta aplikatu behar den esparru juridikoa betetzeko”.

Linean: https://bideoak2.euskadi.eus/2019/11/18/news_58411/Dictamen_cas.pdf

**3// 2016-2020: GERRAREN KONTRAKO EKIMEN BERRIAK
ETA EUSKAL INDUSTRIA MILITARRAREN
KONBERTSIOARI BURUZKO EZTABAIDA**

Greenpeacearen txosten batek egiaztatu zuenez, Expal Systems enpresa burgostarrak (Maxam taldea) fabrikatutako munizioa zamatu eta garraiatzeko linea erregular bat ezarri zen Bilboko portuan 2016ko apirilean⁸. Ordutik hona, helmuga Saudi Arabian duten eta Ipar Amerikako nahiz Europako hainbat portutan armak zamaten dituzten ontzi horiek 7.514 munizio tona baino gehiago garraiatu dituzte, 138,8 milioi euroko balioan. Bada, Saudi Arabia-ri saldutako material militar eta defentsa-material horrek (munizioa, morteroak, fragatak), Delás zentroko⁹ edo «Armak kontrolpean» kanpainako ikertzaileek hainbat aldiz adierazi duten moduan, gatazka armatuetan amaitu du zuzenean; hala nola, Yemen 2015etik jasaten ari den gerratean.

ACNURen datuen arabera, Yemengo gerrak 190.000 lagun baino gehiagoren barne-lekualdaketak edo exodoa eragin ditu dagoeneko (horietako asko, gainera, herrialde mugakideetako beste gerra batzuetatik erbesteratu eta Yemenen asiloa topatu zutenak dira), eta herrialdea azken 100 urteetako gosete latzena bizitzen ari da. Balioesten denez, 2020an yemendarren % 80k laguntza humanarioa beharko dute biziraun ahal izateko¹⁰. 2019aren amaieran, 233.000 yemendarrek baino gehiagok galdua zuten bizitza borrokan edo krisi humanitarioaren erruz.

Nolanahi ere, administrazio publikoek gatazka horretan duten parte-hartzearen eta erantzukizunaren askotariko mailen ganean zegoen isiltasuna 2017an hasi zen hausten, suhiltzaile batek, kontzientzia-eragozpenari helduz, helmuga Saudi Arabian zuen lehergailu-karga baten gainbegiratze-lanetan parte hartzeari uko egin zionean, Bilboko portuan. Bizkaiko Foru Aldundiak diziplinazko espedientea abiatu zuen suhiltzaile haren kontra, oso falta larria egitea egotzita; azkenik, baina, «falta arina eta ohartarazpena» jaso zituen. Koherentzia pertsonal eta etikoz bustitako ekintza hark, halaber, gerraren kontrako mugimenduen aurretiko eta ondorengo protestei begiratzeko balio izan zuen. Zalaparta haren ostean, «ontzi eta salgai guztiak indarreko legezkotasuna betez kudeatzen direla¹¹» baieztatu zuen Bilboko Portu Agintaritzak, baina 2018ko martxotik aurrera gerrako materialaren ontziratzea Bilbotik Santanderreko portura eramatea lortu zuten protestek, nahiz eta, 2020ko otsailean, Bahri Yanbu ontzia euskal portura itzuli zen, irregulartasunez josiriko armamentu-karga berri bat egitera.

Hala, Bilboko portua armamentua ateratzeko ateetako bat dela egiaztatu izanak protesta-dinamika bat sortu du 2017tik hona, eta, dinamika horren esparruan, hainbat ekintza egin dira; hala nola, 2017an eta 2018an Greenpeaceko kideek itsasontzi bat blokeatu zuten; emakume batzuk portuko hesietara kateatu ziren, mila feminista inguruk martxa bat egin zuten Santurtzitik abiatuta, eta 2020an Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformaren elkarretaratze bat egin zen Getxon. Presio hura maila instituzionalera iritsi zen, eta Eusko Legebiltzarrak armak Saudi Arabiara esportatzearen inguruko eztabaida eduki zuen 2017ko azaroaren 23an. Alabaina, debateak berak eta ondoren onetsitako adierazpenak¹² gatazka konpontzeko nahian jarri zuten arreta, eta esportazioetan gardentasun handiagoa behar dela baino ez zuten adierazi, epel adierazi ere, Euskadiko arma-ekoizpenaren gaineko eztabaidaren muinari heldu gabe.

8 Greenpeace. 2019. I. ibilbidea: ia bi urte Burgosen fabrikatutako munizioa Bilbotik eta Santanderetik Saudi Arabiara eta Arabiar Emirerri Batuetara bidaltzen. Linean: <https://es.greenpeace.org/es/en-profundidad/las-rutas-de-riesgo-de-las-armas-espanolas/ruta-i-casi-dos-anos-enviando-municion-fabricada-en-burgos-a-arabia-saudi-y-emiratos-arabes-desde-bilbao-y-santander/>

9 Centre Delàs. 2016. "Arabia Saudí y los bombardeos en el Yemen: La responsabilidad del Estado Español". Linean: <http://centredelas.org/publicacions/informe-del-centro-delas-arabia-saudi-y-los-bombardeos-en-el-yemen-la-responsabilidad-del-estado-espanol/?lang=es>

10 ACNUR, 2020ko uztaila. "Conflicto en Yemen: situación en 2020".

Linean: https://eacnur.org/blog/conflicto-en-yemen-situacion-actual-tc_alt45664n_o_pstn_o_pst/

11 Erredakzioa. 2020/02/12. "Movimientos extraños en la estancia de Bahri Yanbu en el Puerto de Bilbao". El Faradio. Linean: <https://www.elfaradio.com/2020/02/11/movimientos-extranos-en-la-estancia-de-bahri-yanbu-en-el-puerto-de-bilbao/>

12 Eusko Legebiltzarra. 2017/11/23. Elkarrekin Podemos talde parlamentarioak egindako lege besteko proposamena, Saudi Arabiarekiko harreman politikoei eta hari armak saltzeari buruz: http://www.legebiltzarra.eus/ords/f?p=CTP:ASUNTOS_DETALLE::

NO:RP:P10_ID:166223&p_lang=es

Dirudienez, eztabaida parametro horietan zentratzea da, baita ere, lehen aipaturiko txostenaren xedea; hots, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak Globernance-Gobernantza Demokratikoaren Institutuari Euskadiko arma-merkatari eta -esportazioari buruz agindutako txostenarena, hain zuzen ere. Alde batetik, dokumentu horrek egiaztatu egiten du Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarrak edo EAeko erakundeek ez dutela eskumenik merkatari eta nabigazioan eta interes orokorreko portuetan edo kanpo-merkatariaren portuetan, armetan eta arma-industrian, baina txostena ez da deskribatzailea bakarrik, esportazioen gardentasuna eta kontrola hobetzeari eta armen esportazioaren inguruko indarreko ordenamendu juridikoa betetzeari begira jokabide- eta/edo gardentasun-kodea sortzea proposatzen baitu erkidegorako, zeinera Euskadiko arma-sektoreko enpresak atxiki daitezkeen, boluntarioki, zerga-kenkarien truke. Txostenean bertan jartzen duenez, Eusko Legebiltzarrak 2007an eman zuen gaiari buruzko iritzia jendaurrean, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007 Legearen bidez, eta «armak ekoizten, saltzen eta finantzatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoekin¹³» inolako lankidetzarik ez gauzatzeko konpromisoa hartu zuen. Dena dela, horri buruzko legedia dagoela aitortu ondoren, txostenak ekonomikoki kuantifikatzen du Euskadiko arma-sektorearen garrantzia, eta Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren Legearen 3.3. artikuluan xedatzen denaren eta sektoreko euskal enpresei jokabide-kodera atxikitzeagatik eskainitako diru-laguntzen eta kenkarien arteko kontraesana «bideratu» ahal izateko «lege-aldaketak» egiteko premia planteatzen du.

Arma ekoizti eta esportatzea legezkoa da, eta, hortaz, txostenak ez ditu arma-salmentaren ondorioak zalantzan jartzen, baldin eta salmenta hori legezkontasunaren eremuan bada. Horrela, alde batera uzten da armagintzak gastu militarra gastu sozialaren kontura handitzeko orduan duen papera, eta arma-salmenta armen gaurko edo etorkizuneko erabileratik bereizten da, gaur legezkontasunaren barruan egiten bada. Txostenean, ez da inondik ageri konbertsioaren aukera, ezta legezkontasun zorrotza eta gardentasuna industria militarrik gabeko etorkizunerako tresna izango diren trantsizio baten ondorengo estadio gisa ere. Alderantziz: Eusko Jaurlaritzak babesten duen proposamenak agertoki berri baten aurrean jartzen gaitu, non industria militarra ekoizpen-sektoreko beste eremu bat bezala onartzea bilatzen den, mundua suntsitzen ari diren gatazka armatuetan inplikaturik egoteagatik eta ziklo ekonomiko militarrean parte hartzeagatik arazotzat jo ez dadin.

Hori dela-eta, nabarmendu beharra dago euskal industria militarrek kanpoaldean eragiten dituen errealitate eta ondorio potentzial zein materialekiko kezka konstante bat dela, hainbat hamarkadako konstante anitz eta zeharkakoa, zeinaren bidez bestelako aukerak planteatzen zaizkion Eusko Jaurlaritzaren txostenari eta eztabaida etorkizunera begirako parametroetan birkokatu nahi den, ekoizpen militarra zibil bihurtzeko bidean aurrera egiteko asmo argiarekin.

Azterketa historikoa eginez ikus daitekeenez, euskal ekoizpen militarrek mendeak daramatza gure herrian hedatuta, eta, gerrarako materiala sortzeaz eta enpresaburuen sektore bati ekonomikoki mesede egiteaz gain, bere eginkizuna izan du lurraldearen industrializazioan, teknologiaren garapenean, enplegu-sorkuntzan eta herri batzuetako biztanleriaren igoeran. Nolanahi ere, hori ez litzateke harro egoteko arrazoi izan beharko, ezta gure armagin-iraganari buruzko kontakizuna eraikitzen jarraitzeko motibazioa izan beharko ere. Gure iragan eta orainaldi horri testuingurua jartzea gai polemikoa da, ordea, balantzaren beste aldean onartu egiten baldin bada estatuak material belikoa gastu sozialaren kontura eta hainbat gerratan (hemengoetan edo urrunagoetan) sorturiko sarraskien kontura finantzatzen duela.

¹³ Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. 2008. 14/2007 LEGEA, abenduaren 28koa, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarena.

Gure armagin-iraganaren kontakizunak ekoizpen militarrik gabeko etorkizuna baldintzatu dezake? Edo iragan horri testuingurua jarri eta arma-industria ekoizpen zibil bihurtzeko proiektua erronka eta erreferentzia positibo bilakatzeko gai izango gara? Etorkizun hori, utopikoa izatetik urrun, egingarria da, plangintza egoki batean kokaturiko neurri politiko eta ekonomiko zehatzak hartzen badira. Gizarte zibila, azken hamarkadetan eta, batez ere, azken bost urteotan ikusi den bezala, gizartearen desmilitarizazioan aurrera egiteko erabakiak hartzea sustatuko duen motorra izan daiteke.

**4// BAKEZALEAK, ANTIMILITARISTAK ETA GGKEak. BOST
HAMARKADAZ ARMAGABETZEA XEDE**

Euskal Herrian, mugimendu bakezale eta antimilitarista zabala dago 70eko hamarkadatik, beste lan-eremu batzuetan industria militarren auzia jorratu duena, derrigorrezko soldadutza amaitu arte bigarren mailan eta azken hamarkadetan modu egituratuagoan egin badu ere. Era berean, munduaren hegoaldean lan egiten duten GGKE-ek ere arian-arian txertatu dute finantza armatuei eta ekoizpen belikoari egindako kritika, nazioarteko gatazketan egonkortasunik eza eta exodo masiboak eragiten dituzten faktoreetako bat direlako.

Euromisilen krisiaz geroztik, euskal gizartean gero eta babes handiagoa lortzen joan ziren bai borroka antinuklearrean inplikaturako euskal gizarte-mugimenduak, bai Gerra Hotzeko bloke-politika arbuaitzen zuten bakezaleak eta bai eragozpen kolektiboko kanpainak abiara zi eta gero intsumisioa aldarrikatu zuten antimilitaristen belaunaldi berriak. Adibidez, 1978tik gero eta gehiago kuestionatzen da Bardeako tiro-eremua; euskal gizarteak NATO errefusatu zuen 86ko erreferendumean, eta gastu militarrei zerga-eragozpena aplikatzeko kanpaina ezarri zen EAEn, 1982an Andaluzian abiatutakoa.

Hain zuzen ere, hamarkada horretan topa ditzakegu industria militarrekin zerikusia daukaten egitasmoen adibideak: NATOren kontrako kanpainaren barruan, 1986ko otsailaren 2an, Euskadiko asanblada feministek martxa bat antolatu zuten Eibarrera, euskal industria militarra ikusgai egiteko xedez¹⁴. Halaber, Gernikako bonbardaketaren 50. urteurreneko ekintzen testuinguruan, SAPA lantegirako eskola-martxa antolatu zen Andoainen, besteak beste.

Beste alde batetik, derrigorrezko soldadutzari intsumisioa egiteko kanpaina egin zen 1989tik 2000ra bitartean, azken urte horretan joan baitziren soldadutzara azken deialdiko gazteak. Bada, desmilitarizazioaren xedea aldi horretan joan zen gizartean eta are euskal erakundee-tan ere sustraitzen, udalek errekrutatzeari laguntzeari utziz, Eusko Legebiltzarrak adierazpenak eginez¹⁵ eta ordezkero zerbitzu soziala sustatzeari utziz edo, beste erakunde batzuen artean, Euskal Herriko Unibertsitateak desgaitasun-neurriak aplikatzeari uko eginez. Urte horietan, hainbat ekintza egin ziren armamentu-enpreetan. Esate baterako, 1995ean lagun batzuk Gernikako Astra eta Andoaingo SAPA lantegietan kateatu ziren, baina soldadutzaren kontrako mugimenduak zerbitzu militarren arbuioari heldu zion batez ere, eta, beraz, euskal lurretako militarismoarekin loturiko beste alderdi batzuek ez zuten intsumisioaren goraldiarekin batera aurrera egitea lortu.

Soldadutzaren kontrako borrokan zentratutako antimilitarismo haren ikuspegi orokorraren gabezia gaitzetzeko premia izan zen 1991ren hasieran Gasteizen pertsona batzuk antolatzen hasi eta Gasteizkoak taldearen ernamuina izan zen hazia sortzeko urratsa emateko arrazoia, euskal industria militarri buruzko informazioa lortu eta errealitate hori salatzeke premia ikusi baitzuten.

Euskal Herriko zerga-eragozpeneko asanbladek, berriz, hasiera-hasieratik lotu zituzten gastu militarra eta arma-lantegiak, eta, Persiar golokoko lehenengo gerraren kontrako protesten testuinguruan, Euskadiko arma-fabriken konbertsioaren aldeko 1. martxa deitu zen (zehazki, EXPAL Explosivos Alaveses lantegira joan ziren)¹⁶. Vicenç Fisas katalana aditua da gatazken konponbidean, eta gastu militarri buruzko ikertzailea da. Bada, martxa hura baino lehen egindako hitzaldietako batean parte hartu zuen, eta Euskadiko industria militarren egoera larria zela nabarmendu zuen, garai hartan hemen garatzen baitzen Espainiar Estatu osoko industria militarren ekoizpen pribatuaren % 70. Hitzaldiaren ostean, Gasteizko talde hasiberriko kideek harreman emankorra eraiki zuten Estatu guztian gerra-ekonomiaren errealitatea argitzeko asmotan lanean ari ziren pertsona eta kolektiboekin.

14 Begoña Zabala. 2008. *Movimiento de mujeres, mujeres en movimiento*. Tafalla, arg. Txalaparta.

15 Kontzientzia Eragozpenaren Mugimendua (KEM). 2002. *En legítima desobediencia. Tres décadas de objeción, insumisión y antimilitarismo*. Madrid, arg. Traficantes de Sueños.

16 Gasteizkoak taldea. 2016/02/16. "Antimilitarismo e industria militar: una asignatura pendiente".

Linean: <http://gasteizkoak.org/antimilitarismo-e-industria-militar-una-asignatura-pendiente/>

90eko hamarkadaren erdialdean, Gasteizkoak taldeak «Pobrezia, suntsiketa masiborako arma» kanpaina parte hartu zuen, beste talde antimilitarista batzuekin (hala nola, Zerga - Eragozpenerako Asanblada, Intsumisiorako Asanblada, Kakitzat eta KEM-MOC), gizarte-ko lektibo batzuekin (adibidez, Langabetuen Asanblada, SOS Arrazakeria) eta herrien arteko elkartasunaren inguruko egitasmo eta elkarteekin batera (esaterako, 0,7 Komisioa, Komite Internazionalistak eta Mugarik Gabe). 1995eko martxoan, SAREA - Arma Merkataritza eta Gastu Militarren ordez Giza Garapenaren aldeko Taldeen Sarea deituriko 10 buletin lehenengo alea argitaratu zen.

Lehenengo urteetan, Gasteizkoak taldeak datuak eta informazioak bildu zituen, euskal industria militarren errealitatea, neurria eta ezaugarriak ezagutu ahal izateko. 1993an, Eutsi/Resiste aldizkariari esker, "Industria militar en Euskadi" monografikoa argitaratu zuten, eta, bertan egiaztatu zutenaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan 70 enpresa baino gehiago aritzen ziren ekoizpen belikoan, eta Defentsa Ministerioak euskal enpresei egindako adjudikazioak % 2,42 izatetik % 22,67 izatera igaro ziren oso denbora gutxian, estatuko industria militarri dagokionez¹⁷. Besteak beste, ITP enpresa bizkaitarra edo GAMESA enpresa arabarra borroka-hegazkin europar baten eraikuntzan sartuta zeudela azpimarratzen zen monografikoa, sektore aeronautikoa lehergai-materialaren eta kanoien euskal ekoizpen tradizionalera sartu zela erakusteko.

Industria militarren kontrako bigarren martxak Gernikako ASTRA pistola-fabrika izan zuen helmuga, eta, ekimena amaitutakoan, hausnarketa berriak egin zituzten mugimendu antimilitaristaren barruan. Gasteizkoak taldeak azaltzen duen bezala, «Aldi berean, konbertsio-prozesu baten helburuei, ezaugarriei eta baldintzei buruzko testuak egin eta zabaldu ziren, bai eztabaida hauspotzeko, bai prozesua jorratu ahal izate aldera inplikatu behar ziren askotariko aldeentzat (talde antimilitaristak, bakezaleak eta sozialak oro har; sindikatuak eta langileak; ekonomialariak eta ingeniartzako ikasleak edo profesionalak; erakundeak...) interesgarri gertatzeko¹⁸».

Eragindako aldeekin komunikazio-bideak irekitzen saiatzeko ildo berean, aurretiko lana egiten saiatu ziren Euskal Herriko arma-fabriketarako III. martxatik aurrera, bai martxa egin aurretik delako fabrikaren herrian bilerak, eztabaida publikoak eta mahai-inguruak antolatzen, haien herri edo hirian lanpostuak galtzeko aukera ikusita bereziki sentikor baitzegoen toki horietako jendea, bai langileekin eta haien ordezkariak sindikalarekin idatziz zein aurrez aurre harremanetan jartzen saiatzen. Izan ere, argi utzi nahi zen xedea ez zela fabrikak ixtea, lanpostuei eutsita ekoizpena aldatzea baizik.

Paraleloki, Kataluniako zenbait erakundek fabrika militar bat konbertitzeko aukerei buruzko ikerlana egitea erabaki zuten 2004an, azkenik EXPAL lantegia hautatuz, batez ere Colectivo C3A taldeak (arma-merkataritzaren kontrako kanpaina) eta Justizia eta Bakea taldeak (1999an, Centre Delàs d'Estudis per la Pau zentroa sortu zen hortik, zeinak 20 urte daramatzen dagoeneko armagabetezarekin eta bakearekin loturiko gaiak lantzen) animatuta. Gasteizkoak taldearen laguntzarekin, beste ekimen batzuen artean, langileekin bilera bat egin zen. Gutxi bertaratu ziren arren, egitasmo berritzailea izan zen, eta lantegiko sindikatu etako bat ere inplikatu zen. Urte eta erdiz, erakunde katalanek analisi bat egin zuten hainbat gaitako adituekin (ekonomia, ingeniartzatza industrial, kimika, soziologia...), eta Lankidetzaren Euskal Agentzia inplikatzeko nahiz Alemaniako Bonn International Centre For Conversion (BICC) zentroak aholku ematea lortu zuten. Horren guzti horren ondorioz, Arcadi Oliveres Bartzelonako Unibertsitate Autonomoaren Ekonomia Aplikatuko irakasleak gidatutako taldea sortu zen¹⁹.

17 Monográfico Revista Eutsi/ Resiste. Junio 1993. "Industria militar en Euskadi". En línea: <http://gasteizkoak.org/wp-content/uploads/2016/02/Eutsi-93-1.pdf>

18 Colectivo Gasteizkoak. 16/02/2016. "El movimiento antiarmamentista vasco: una experiencia en desarrollo". En línea: <http://gasteizkoak.org/el-movimiento-antiarmamentista-vasco-una-experiencia-en-desarrollo/>

19 Centre Delàs d'Estudis per la Pau. Enero 2004. "Propuesta de estudio de conversión de la industria militar EXPAL (2)". En línea: <http://centredelas.org/actualitat/propuesta-de-estudio-de-conversion-de-la-industria-militar-expal-2/?lang=es>

Alabaina, enpresa bera eta enpresa-batzordean ordezkariak gehiengodun sindikatua kontra agertu ziren, eta bertan behera geratu zen arma-fabrika baten konbertsio-prozesu aitzindaria izateko aukera. Nolanahi ere, EXPAL lantegikoa esperientzia berritzailea izan zen, eta Arabako beste gizarte-mugimendu eta GKE batzuekin lotura berriak egitea ahalbidetu zuen.

Expal fabrikarekin esperientzia praktikoa garatzeaz gain, Gasteizkoak taldeak gastu militarri buruzko ikerketa- eta informazio-lan etengabea egin zuen hainbat txostenetan, 1995etik aurrera (1994ko arma-esportazioen laburpena barne hartuta), eta, besteak beste, aurrekontu militarrek kontrol sozialarekin lotu zituen, edo aurrekontu militarren eta pobrezia arintzeko edo oinarrizko errenta bat ezartzeko eta etxebizitza-premiak edo hezkuntzakoak estaltzeko egin beharko litzatekeen gastuaren arteko alderaketa egin zuen, «gastu militarra zenbat eta handiagoa izan, gastu soziala orduan eta txikiagoa da» dikotomia agerian jartzeko xedez.

1998an, taldeak «Armagintza Euskal Herrian» txostena argitaratu zuen, eta, handik hamar urtera, 2008an, Mercaderes de la muerte made in Euskadi liburua, non honako hau egiaztatu zuten: «Lehenengo lan hartan aipatu genituen ia 90 enpresetatik 60 dagoeneko ez daude, eta, are, euskal armagintzako sektore zoritxarrez historiko eta adierazgarrienetako batzuk haiekin desagertu dira. Alabaina, bizirik jarraitzen dutenez gain, beste berrogeita hamar bat enpresa sortu dira, eta, haiekin, euskal industria militarretik sekulako minbizia soziala egiten jarraitzen duten sektore batzuk indartu dira, edo berriak sortu²⁰».

2008ko lan horretan, agerian jarri zen Euskadiko industria militar tradizionalak, armak ekoitzi eta esportatzen dituzten enpresek aeronautikaren eta puntako teknologiaren alde egin duten apustuak bezalaxe, Estatuko eta Euskadiko erakundeek laguntza jaso duela. «Laguntzeko moduak ugariak eta askotarikoak dira (itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak, interesik gabeko maileguak, abalak, zergen deuseztapena, lursailen lagapena, sarien eta aitortzen esleipena, ordezkariak instituzionala, babes politikoa...), eta benetan zaila da laguntza horren neurria zein den jakitea, hainbat arrazoi direla medio²¹». Gasteizkoak taldearen azken lanak, Estas guerras son muy nuestras liburua (2016), euskal armagintzaren azken hamarkadetakoa eta gaur egungo errealitatea laburbiltzen du, eta auziari testuingurua ematen dio.

Dokumentazio-lan luze hura oso baliagarria izan zen 2019an La guerra empieza aquí dokumentala egiteko. Dokumentala mikro-mezenasgo bidez finantzatu zen, eta Bilboko KEM/MOC mugimendua biltzen duen Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaia plataformaren barruan izen berekin lan egiten duen batzordeak sustatu zuen. Dokumentalak²², bada, Euskal Herriko arma-industriaren errealitate historikoa eta gaur egungoa erreparatzen ditu, eta gatazka-egoeran dauden herrialdeetara armak esportatzearen kontra egin berri diren gizarte-mobilizazioak xehatzen. Bertan, Yemengo gerraren ondorioak ez ezik, gerrak herrialdean eragindako ondorioak arintze aldera yemendarrek garatu dituzten ekimen solidarioak eta Bilboko portuak Burgosen ekoiztutako armen esportazioan duen eginkizuna ere azaltzen dira. Eta, halaber, Yemen bonbardatzen duten ehiza-hegazkin saudiarabiarren motorren osagaiak ITP Aero enpresan ekoizten direla esaten du, eta enpresa hori osagaion mantentze-lanen zerbitzuarekin lankidetzan dabilela²³.

20 Colectivo Gasteizkoak. 2008. Mercaderes de la muerte made in Euskadi. Vitoria, Paperezko ZAPIadak.

21 Ídem.

22 Que puede visionarse gratuitamente en el siguiente enlace: <https://www.youtube.com/watch?v=wsTvrA41FH4>

23 Pareja, Pol. 24/11/2019. "Una empresa española presidida por Josep Piqué produce los motores de los cazas saudíes que bombardean Yemen". ELDiario.es. En línea; https://www.eldiario.es/politica/presidida-josep-pique-bombardean-yemen_1_1250306.html

/BAKERAKO IKERKETA

Euskal Herrian, bakeari buruzko ikerketak asko begiratu izan die euskal gatazkaren harira sortutako indarkeriari eta giza eskubideen urraketari, baina hainbat sektorek nazioarteko gatazkei eta gerra-ekonomiari buruzko ikerketan aritzeko egin dituzten ahaleginak ere nabarmendu behar dira.

90eko hamarkadaren testuinguruan, Bakeaz elkartearen esperientzia aipa dezakegu; izan ere, bakearen inguruko gaiei, giza eskubideei eta ingurumenari buruzko ikerketa egiten du (1992an sortu zuten akademiara eta bakezaletasunaren nahiz ekologismoaren eremuetara loturiko hamar bat pertsonak). Hastapenetan, besteren artean, nazioarteko harremanen militarizazioari, ekonomia jasangarriari, bakerako hezkuntzari eta giza eskubideei buruzko gaiak jorratu zituzten, eta Bakeaz Koadernoak bilduman argitaratu, defentsaren ekonomiari, segurtasun-politikei, gatazka belikoei, lankidetzaren politikari, ekologiarari eta garapenari buruzko monografikoen bidez²⁴.

Eremu honetan, Gernika Gogoratuz elkarteak da beste erreferente bat. 1987ko apirilean Eusko Legebiltzarrean legez besteko proposamen bat onetsi ondoren sortu zen, Gernikan bakearen aldeko ikerketa-zentro bat irekitzea eskatzen baitzen proposamen haren bidez, Gernikako bonbardaketaren 50. urtemugaren esparruan. Honako hau da elkartearen xedea: «Hausnarketa zientifiko batek sortu edo babesturiko eta Gernikara eta/edo Gernikaren sinbolora loturiko ekarpenekin mundu-mailan eta, zehazki, Euskal Herrian bake emantzipatzaile eta justu bat lortzen laguntzea²⁵». Hiru hamarkada hauetan, Gernika Gogoratuz elkarteak proiektu ugari garatu ditu, eta, 2013tik, «Memoria historikoa eta antimilitarismoa» jardunaldiak antolatzen ditu urtero, Gernikatik Mundura, KEM/MOC eta Ideasur taldeen laguntzarekin. Gainera, sinbolikoki, ASTRA «kulturarako fabrika sozialean» egiten dira jardunaldiak; hots, izen bereko arma-enpresa zaharraren eraikinean.

Bestalde, lau urteko ikerketa-proiektu batean (2016-2020), beste entitate batzuekin elkarlanean (ehuGune (EHU/UPV), REAS Euskadi eta Mugarik Gabeko Ekonomialariak), Gernika Gogoratuz bake-ekonomiaren kontzeptuaren gainean lan egiten ari da, non «Bakearen ekonomia, euskal enpresa eta giza eskubideak laborategia» ere sartzen den, Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren babespean, bake-ekonomiaren kontzeptuaren inguruko askotariko hurbilketak bildu eta kontzeptuaren diseinua bera egiteko asmoz.

Ildo berean, unibertsitate-eremuan, Moztu plataforma sortu da duela gutxi, goi-mailako hezkuntza-zentroen (adibidez, Lanbide Heziketaren) eta arma-enpresen arteko loturei buruz hausnar dadila eskatzeko.

²⁴ Bakeaz Koadernoak bilduma: <http://zaindezagunurdaibai.blogspot.com/2013/05/cuadernos-bakeaz.html>

²⁵ Haien web-orrialdean kontsultatu daiteke: <https://www.gernikagogoratuz.org/>

/ GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK

90eko hamarkadan, hainbat GGKE inplikatu ziren ardaztat arma-ekoizpena eta -merkatu-ratzea zituzten kanpainetan. Horren adibidea dira, esaterako, «Sekretu batzuek hil egiten dute» kanpaina, 1994koa, Amnistia Internazionalak, Greenpeacek, Mugarik Gabeko Medikuek, Intermonek eta Kataluniako Centre UNESCOk gidatu zutena, eta «Bake-dibidendua, bakean inbertitu» kanpaina, 1999koa, Espainiako GGKE-en Koordinadorarena, zeinaren bidez gastu militarren murrizketa gastu sozialetara eta herrialde pobretuei laguntzera bideratu dadin eskatzen zen. 2003an, «Armak kontrolpean» nazioarteko kanpaina sortu zen, 100 bat herrialde-tako 500 taldek baino gehiagok osatutako sarea. Globalizazioaren aurkako mugimendua-ren garapen- eta erreferentzialtasun-urte horietan, munduaren iparraldeko herrialdeetako politikak hegoaldeko herrialdeetan dauden gatazkekin lotzen dituen diskurtsoa indartu zen.

Euskal GGKE-ek kanpaina propioak ere bultzatu zituzten, edo bankuen eta gatazken arteko lotura finantzarioei buruzko mundu-mailako egitasmoetan parte hartu zuten («BBVA arma-rik gabe», «Banku zinikoak»), bankuak eta funts etikoak (FIARE, Oikocredit...) finkatu ziren garaian. GGKE batzuk zerga-eragozpenaren²⁶ kanpainan inplikatu ziren, eta 2018an hamar talde antimilitaristak «Gerrarako Eusko Label armak» lelopean Gasteizko kaleetan antolatu zuten azokan parte hartu zuten, euskal ekoizpen militarren errealitatea eta eginkizuna agerian jartzeko asmoz. Ekintza mota horien aurrekariak izan ziren Bilboko KEM/MOC mugimenduak 2004tik urtero antolatutako Euskal Bazoka egitasmoa edo Kakitzat taldeak 2008tik antolatutako bizikleta-martxak, pobreziaren eta arma-enpresen kontrakoak. Aurretik eremu instituzional eta arauemailean egindako lanaren osagarri dira jarduera horiek, zeinaren bidez garapenerako laguntza ofizialerako politiken eta Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadiko foru- eta toki-erakundeen gainerako politiken artean koherentzia egotea eskatu duten euskal GGKE-ek (Euskadiko Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legean islatzen da²⁷).

Urte hartan bertan, 2007ko abenduaren 28an, Eusko Legebiltzarrak Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren 14/2007 Legea onetsi zuen. Bertan, 3.3. artikuluan, honako hau adierazten da: «Enpresak lagundu eta sustatzeko politikan, Eusko Jaurlaritza ez da inolaz ere elkarlanean arituko armen ekoizpen, merkaturaketa eta finantzaketan ari diren pertsona fisiko edo juridikoekin». Euskal erakundeek ez dute artikulu horren edukia garatu, baina azken urteetako euskal egitasmo antimilitaristen bilakaerak, susperraldiak eta keme-nak testuinguru horretan haien tokia hartzera behartu dituzte erakundeak, eta urrats batzuk ematen hasi dira, nahiz eta ez izan GGKE-ek, mugimendu antimilitaristak eta errefuxiatueki-ko elkartasun-mugimenduak abiatutako norabide berean.

²⁶ Zerga-eragozpenaren aldeko euskal kanpaina: <https://www.eragozpenfiskala.org/>

²⁷ Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1/2007 Legea, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa. Euskal Autonomia Erkidegoa.

**5// EUSKADIKO ARMA-MERKATARITZA ETA
-ESPORTAZIOARI BURUZKO TXOSTENAREN BALORAZIOA
ETA ERANTZUNA**

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko arma-merkataritzari eta -esportazioari buruzko txostena aurkeztu zuen 2019ko azaroan, non euskal erakundeek esportazioen gardentasuna nahiz kontrola hobetzeko duten eginkizuna zein den ere azaltzen den. Bada, txostena argitaratu eta gutxira iritsi ziren Gasteizkoak eta Ongi Etorri Errefuxiatuak taldeek dokumentuaren ondorioei egindako azterketak. Talde arabarrak ondorioztatu zuenez, ekimenak armagintzan bertan zeukan jatorria, industria militarrek bere burua zalantzan jarria ikusi eta Eusko Jaurlaritzari bere ekoizpenaren legezkotasuna defenda zezan eskatu ziolakoan²⁸. Gasteizkoak taldeak txostenaren «zuriketa etiko eta soziala» kritikatu zuen, enpresa horiek jasotzen dituzten laguntzen eta/edo hobarien igoera legitimatzen baitu.

Bestalde, Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak, txostena puntuz puntu aztertu ondoren, honako hau baieztatu zuen, kategorikoki baieztatu ere: «Egia izanik ere euskal erakundeek itsas garraioan eta interes orokorreko portuetan, kanpo-merkataritzan eta armen nahiz lehergailuen ekoizpenean, merkataritzan, edukitzan eta erabileran eskumenik ez dutela, haien eskumeneko beste eremu batzuetatik (kanpo-ekintza eta garapenerako lankidetzak, industria-politika, ekonomiaren antolamendu orokorra, ikerketa...) koordina daitezke Euskadiko arma-ekoizpena eta -merkataritza²⁹». Eta honako hau gaineratu zuen: «Gero eta konplexuagoa da eskumenak EBren, estatu kideen eta erakunde azpiestatalen artean banatzea, eta ez dago erakunde horiek elkarrekin jarduteko koordinazio- eta lankidetzak-gunerik ere; gainera, erakunde azpiestataleak ez dute parte hartzen jarrera nazional eta europarrak eratzeko orduan. Hala ere, hori ezin da izan erantzukizunak beste gobernu-maila batzuetara bideratze-ko aitzakia».

Ongi Etorri Errefuxiatuak taldeak komunikatuan balioesten zuenez, 14/2007 Legearen 3.3. artikulua garatu ez izanak bere ahalmena aztertzekeo pizgarria izan behar du, eta ez, txostenak proposatzen duen bezala, «gaur egungo arma-merkataritzaren gardentasunari begirako hobari-neurriak hartzekeo arrazoia». Erakunde publikoen helburuak «euskal armagintzari arauak eta mugak jartzea» izan behar badu, pizgarrien sistemek «Euskadiko arma-ekoizpena eta -merkaturatzea murriztera bideratuta» egon beharko lukete; izan ere, ez txosten horrek, ez aurretiko beste azterlan batzuek ez dituzte behar beste miatu euskal enpresa-jarduerak giza eskubideen gainean dituen ondorio txarrak.

Hortaz, mugimendu bakezale eta antimilitaristak eta errefuxiatuekiko elkartasun-mugimenduak bat gatoz esatean ez dagoela behar besteko azterlanik eta diagnostikorik euskal enpresa-jardueraren ondorioz hemendik kanpo eskubideak zenbateraino kaltetzen diren ikertzen duenik, eta, horrenbestez, txostenean jasotzen diren proposamenek gaurko egoera sendotu besterik ez dute egiten, arazoari errotik heldu ordez.

Txostenean, giza eskubideen behatokia sortzea proposatzen da, kode etikoa sinatzen duten enpresa militarrei jarraipena egiteko. Hala ere, Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak gogoraztu zuen bezala, «Euskadin, Estatuan eta Europan, koordinazio- eta kontsulta-guneak daude, eta euskal arma-industria kontrolatzeko ekimen zehatzak jorra litezke horietan, pizgarrien mekanismoei buruz eztabaidatzearekin batera». Euskadiren kasuan, lan egiteko toki eta tresna izan daitezke bai Politiken Koherentziarako Erakundearteko Batzordea, non euskal administrazioak ordezkaturik dauden, bai Lankidetzarako Euskal Kontseiluak koherentzia-printzipioaren betetze-mailari buruz urtero aurkeztu beharko lukeen txostena.

28 Gasteizkoak. 2019/11/27. "Código ético para la industria militar: la execrable inocentada del Gobierno Vasco para 'blanquear' y promocionar la armagintza". Linean: <http://gasteizkoak.org/codigo-etico-para-la-industria-militar-la-execrable-inocentada-del-gobierno-vasco-para-blanquear-y-promocionar-la-armagintza/>

29 Ongi Etorri Errefuxiatuak. 2019/12/21. "Valoración del informe «Comercio y exportación de armas en Euskadi»".

Linean: <https://ongietorrierrefuxiatuak.info/es/2019/12/21/paso-a-paso-hacia-el-de-la-produccion-y-comercio-de-armas-desde-euskadi/>

2016an, gai horiei buruzko lan-mahai bat eratzea proposatu zuten gizarte-eragileen ordezkariak Lankidetzarako Euskal Kontseiluan, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak enpresei eta giza eskubideei buruzko elkarrizketa-gune bat / auzo(lan)kidea aurreikusi zuen Lankidetzarako 2018-2020ko IV. Plan Nagusian, artean abiatu gabe zegoena. Hortaz, ez litzateke egitura berririk sortu beharko, indarreko legedian jada aurreikusitakoak finkatu baizik.

Elkarteek eta kolektiboek, halaber, asko kritikatu zituzten txostenaren ikuspegiaren mugak, gardentasunean, gizarte-erantzukizun korporatiboan eta jokabide-kodeetan zentratzen baititu neurri erregulatzailerak; hau da, borondatean. «Borondate erretorikoaren eskemak albo batera utzi behar dira, eta gure administrazioetan Euskadiko arma-ekoizpena eta -esportazioa pixkaka desagerrarazten joateko politikak taxutzeko jarduketarako konpetentzial, erregulatzailerak eta programatikoa dagoela azpimarratu», gogorarazi zen argitaratutako balorazio-komunikazioan. Globernancek gardentasunaren inguruan proposatutako neurrietatik urrun, pizgarrien eta laguntzen sistema berri bat eskatzen zen jomuga gisa, bai, baina euskal industria militarra industria zibil bihurtzeko. «Euskal industria militarren sektoreak berregituratzeko, Estatuaren eskumena denez, armak ekoizten eta esportatzen dituzten industriak eraldatzeko trantsizio-plan bat adostu beharko litzateke Espainiako gobernuarekin, eta gero euskal administrazioek garatu eta betearazi beharko lukete plana», eskatu zuen Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak. Horretaz gain, ekoizpen militarreko enpresek konbertsioa premiazat hartzen laguntzeko neurri zehatzak proposatu zituen.

Horien artean, honako hauek daude: armak eta haien osagaiak ekoizten eta esportatzen dituzten euskal enpresei beste herrialde batzuetan negozio berriak irekitzeko ordezkariak komertzialetan parte hartzen ez uztea, enpresa mota horien kontratazio publikoari euskal administrazioetan pizgarriak kentzea (bereziki, gatazkan dauden herrialdeekin salerosketetan dabiltzanei) edo erakundeek maximoen plan bat egitea, arma-ekoizpenaren eta -salerosketaren arloan indarrean den legezko tasuna betetze aldera.

Hori guztia, pizgarrien sistema berria eratzen joateko xedez, zeinaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoko Industriari buruzko azaroaren 12ko 8/2004 Legea³⁰ aldatu beharko litzatekeen eta industria- nahiz enpresa-arloko politiken programa eta plangintza berrietan neurri berri horiek sartu beharko lirartekeen; hau da, Euskadiko arma-ekoizpena eta -esportazioa uztea eta horien ordezkari giza eskubideekin eta bizitzaren jasangarritasunarekin adeitsuagoak diren ekoizpen-jarduerak finkatzea sustatzeari begirako neurriak txertatu beharko lirarteke.

Ongi Etorri Errefuxiatuak taldearen balorazioan gogorarazten zenez, gizarte zibil antolatutako honako hau eskatzen du, besterik gabe: «Legea bete dadila, edo, gauza bera dena, Eusko Jaur-laritzak eta administrazio publikoek manu horiek sistematikoki ez betetzeari utz diezaiotela, diru-laguntzak, laguntzak eta zerga-kenkariak ematen baitizkiote arma-sektoreari, haz dadin».

6// ONDORIO MODUAN

Askatasunak eta giza eskubideak ezartzeko eta garatzeko prozesuetan, gai batzuetan, edozein aldaketa sozialek berezkoak dituen zailtasunei gaineratzen zaizkie gizarteen ohiturak, tradizioak eta inertziak. Denboran luzatutako egoera horien aurrean, zenbaitetan, «legalizazioa» eta «abolizionismoa» elkarren kontrako polo eta irtenbide dual gisa planteatzen dira, eta, beste batzuetan, bi estadioen arteko trantsizio gisa: eztabaida dualista horien adibide errepikakorrak dira, besteak beste, prostituzioa eta droga-kontsumoa. Kontu horiek eta beste batzuk legez kanpokoak izateak gatazken irtenbidea zailtzen du, baina delako egitateak legezkoak izateak berak ere zailtasunak ekar ditzake: ohiko adibidea da derrigorrezko soldadutza. Izan ere, soldadutzaren legezkontasuna ukazina zen, eta harekin bukatu nahi zuten mugimendu bakezaleak, gazteriak eta gizartearen zati handi batek murrubaten aurrean topo egiten zuen gizartea baino askoz ere atzeratuago zeuden alderdi politikoen murrubia.

Bestalde, hierarkia militarrek errekrutatze aberkoia egiteko premiaren defentsak/betoak eta funtzionamendu instituzionalaren mugek galarazi egiten zuten derrigorrezko soldadutzaren abolizioaren auziari aurre egitea. Alabaina, kontzientzia-eragozpeneko mugimenduak eta intsumisiorako desobedientzia zibilaren kanpaina zabalak soldadutza kentzea lortu zuten hamar urtetan, eta, ondorioz, Estatuak armada birmoldatzeko planak aldatu behar izan zituen, eta eredubilakatu nahi zutena (derrigorrezkoa eta profesionala) erabat profesional bihurtu.

Lehen adierazi den bezala, derrigorrezko soldadutza desagertzeko mugimenduaren edo, besteak beste, mugimendu feministaren eskarmentuak erakutsi digunez, zenbaitetan, herritarrek dagoeneko ibilita izaten dituzte alderdi politikokoak eta erakundeak oraindik marrazten hasi ere egiten ez diren bideak, azken horiek immobilismoan eroso egoten baitira.

Dena dela, «Armen merkataritza eta esportazioa Euskadin. EAEko erakundeek eginkizuna gardentasuna hobetzeko, esportazioak kontrolatzeko eta aplikatu behar den esparru juridikoa betetzeko» txostenak bazter uzten du industria militarra zibil bihurtzeko proposamenek azken hamarkadetan egin duten ibilbidea, eta, aipaturiko immobilismo horretatik, gaur egungo arma-ekoizpena finkatzen duten edo, behinik behin, zalantzan jartzen ez duten neurriak proposatzera igarotzen da.

Industria militarren etekin ekonomikoak argudiotzat erabiltzea ezdeusa da, industria horrek eragiten duen suntsiketa eta horren ondorioz xahutzen diren baliabide publikoak aintzat hartzen baditugu. Aldi berean, inbertsio militarrek enplegua sortzen dutelako argudio erabilia hainbat aldiz jarri da kolokan. Adibidez, Brown Unibertsitateko Watson Institute for International & Public Affairs institutuak gerraren kostuari buruz egindako ikerlanetan erakutsi denez, gastu militarrek % 50 lanpostu gutxiago sortzen ditu sozialki hain kaltegarriak ez diren beste eremu batzuetako gastuak baino (hala nola, hezkuntzakoak edo energia berriztagarrien ingurukoak)³¹.

Armen ekoizpena ez da zurriz, ezta benetako krisiei (adibidez, COVID19ari) aurre egiteko orduan ezdeusa dela erakutsi duen segurtasun-kontzeptuak migratzaileen edo babes bila dabiltzanen eskubide-urraketak areagoatzen diturako Ikerketaren Espainiako Elkarteak (AIPAZ) «Arma edo osasuna?» kanpaina adierazi moduan³². Are, elkarte horren esanetan, segurtasun-kontzeptuak migratzaileen edo babes bila dabiltzanen eskubide-urraketak areagoatzen ditu.

Horrenbestez, erakundeek eta enpresen jardueraren alderdi guztietan politiken koherentzia sustatzea da gakoa, gure herrian nahiz munduan oro har oinarritzeko giza eskubideen zabalpena erabatekoa izan dadin. Horri begira, arma ekoizten dituzten enpresak ekoizpen zibilerrako konbertsio-prozesuak abiatzera bultzatu behar dira, eta sindikatuekin batera lan egin, trantsizio horietan langileen lan-eskubideak kaltetu ez daitezten. Zentzu horretan, ezinbestekoa da neurri fiskalak eta gaur egungo industria militarra sendotzeko inbertitzen den diru publikoa birbideratzea.

31 Costs of War Project. Watson Institute for International Studies at Brown University. Linean: <https://watson.brown.edu/costsofwar/>

32 AIPAZ Arma edo osasuna eskaera. 2020. Linean: <https://aipaz.org/peticion/>

Hauxe baita erronka: arma-ekoizpenik gabeko lurraldea izatea lortu zuen «herri armagin zaharra» bihurtzea. «Arma guk saltzen ez baditugu, beste batzuek egingo dute» aitzakiak ez du balio, euskal arma-ekoizpenari dagokionean gizarteak denbora baitarama desmilitarizatorako bidea urratzen. Orain, erakundeek eman behar dute lehenengo pausoa. Borondate politikoa egonez gero, Euskadiko arma-ekoizpena eta -esportazioa desagerrarazteko oinarriak jar daitezke.

